



ELGETAKO EAJ-PNV TALDEAK MENDIZALE PLAZAKO ETXEA UKRANIAKO ERREFUXIATUEI ESKEINTZEKO MOZIOA (2022komartxoak 14kiaren eguneraketa)

Elgetako EAJ-PNV taldeak udal gobernuari proposatzen dio lehen bai lehen Ukrainiako Errefuxiatuentzat bideratzea Mendizale plazako etxea. Udal Gobernuak etxe honentzat zuen helburuak ez ditu esperotako fruituak eman, gazteen artean ez du arrakasta handirik izan ekintza honek, eta gaur egun Ukraina bizitzen ari den egoera ikusita premia handiak daude etxerik eta Herririk gabe geratu diren milaka eta milaka errefuxiatu ukrainiarrei laguntzeko.

Euskadik jasan zuen 1936an hasi zen gerra eta elgetarrek ondo jasota daukate memorian sarraski hura. Bertako eta inguruetako gudariak eta euren familiek, herri osoak, gorriak pasa zituzten garai hartan eta ume asko, Gernikaren bonbardaketaren ondorioz atzerrira bidali zituzten gerra hartatik salbu gera zitezten. EAJ-PNVko udal talde bezala uste dugu orain guri tokatzen zaigula besteek gurekin egin zuten lana egitea eta laguntza ematea.

- EAJ-PNVren Udal Taldeak, aldiko Alkateari eskatzen dio jar dadila Foru Aldundiarekin harremanetan Lehendakariak joan den astean aurkeztu zuen Ukrainiarrentzako Euskadiko Lehen Kontingentzia Plananaren barruan Elgetako Mendizaleen plazako etxea ukrainiar errefuxiatuentzat eskaini dezan.
- Ukraina Nazio bat da, bere kultura, hizkuntza propioa eta Herri izateko eskubide guztiekin, eta gu beraiekin erabat identifikatzen gara gure Nazio izateko eskubideak aldarrikatuz.
- Aldi berean, era bat gaitzesten dugu Putin diktadore basatiaren inbasioa eta Ukrainian sortzen ari den sarraskia. Basati honek ez ditu ez ospitaleak, ez umeak ez giza korridoreak eta ez Nazio Batuen bete beharrak ere errespetatu, eta Elgetan badugu orain aukera ahal dugun neurrian laguntzeko.
- Elgetako Udalak erabateko babes ematen die Europar Batasunak erabakitako ekimen eta ekintza guztiei, eta bide horretatik jarrai dezaten eskatzen die, Ukrainiari ahalik eta gehien laguntzeko eta gerra-erasoaren amaiera lehenbailehen lortzeko.
- Azkenik, Ane Bilbao, Aldiko alkateari eskatzen diogu ez ohiko Osoko Bilkura deitu dezala erabakia lehen bai lehen hartzeko.

Elgetako EAJ-PNVren Udal taldea

Elgetan, 2022ko Apirilak 3.



Egiatzapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER9f89c650-08e5-4639-983f-00aae0d8f26b**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiatzapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=03310>